


Zeruko Argia: 1965



Jose Luis Alvarez
Enparantza
"Txillardegi"

1965ean hasi zen
Zeruko ARGIAAn
idazten Goienetxe
sinadurapean lehenik
eta Larresoro bezala
ondoren.

1965eko urtarrilaren 24an (orain dela 40 urte, beraz) Zeruko ARGIA aldizkariak bere 100. zenbakia kaleratu zuen. Eta, harroharro, eta bere burua euskaltzaleen artean onarpena lortu nahiz edo, esaldi hau nabarmendu zuen: osorik euskeraz agertzen dan asteroko bakarra. Euskara Batua oraindik finkaturik ez zegoela erreparatu duke segituan irakurle erneak.

Gaur egun, berriz, ARGIAren 2.000. zenbakia heldu dela-ta (zortzi ale falta), hirurogeiko hamarkada hartaz neure lekukotza emateko proposatu dit Nagore Irazustabarena lankideak.

Begirada orokorrak urruti eramango gintuzkeela bide, 1965. urteko giroaz zerbait gogoraztekoan elkarraditu gara. Partziala izango da hau, badakit. Baina orduko eguratsa aditzen lagun badezake, gaitzerdi.

(Zeruko) ARGIAren kondaira ez da bate-re lerro-lerro joan. Gerra aurrean 17 urtez hilero argitaratua (1919-1936), frankismoaren ondorioz, 18 urteko etendura jasan zuen (1936-1954). Gero beste bi aldiz izan zen etena; 1963tik aurrera nola-hala bere asterokotasuna osoki finkaturik geratu arte.

Prezioaren aldaketak berak lagun gaitzake agian ondoenik egin behar dugun jauzia egiten: 2,50 pezeta balio zuen (1965ean). Hortaz, 210 bat aldiz galestiago bihurtu zaigu! Hobe, trinkoagoa eta osoagoa ere bai, hein berean.

Zer zegoen "giroan" urte haietan? Hautaketa egin behar. "Gemini"ren arrakastak (1965 - IV), "Apollo" saila, eta Ilargirako

bisitaldia iragarri zituen. URSSean, Mikoyan Presidente eta Brexnef Alderdiko Sekretario agertzen ziren. Franco, berriz, nagusi; eta handik bi urtetara muntatuko zuen "Referendum"aren fartsa erraldoian, are sendoago jarraitzeko bidean. 1975era arte. Euskal Herrian, 1966an, "Bandas"koen greba historikoa. Eta ETaren kontrako zapalketa, gogor hasia. Sarekadak maiz, Burgosko Epaiaketa 1970ean gertatuko bazen ere. Praga, Budapest, Dubcek, Nagy (1968), stalinismoaren lekuko.

Eta, gurera etorri, nork eramaten zituen Zeruko ARGIAren erremalak urte haietan? Hona hemen kronikari nagusiak.

Nere Bordatxotik sailak, "Basarri" Eizmendi bertsolariak eramana, sistematikoki baseritarrei eskainia, gure folkloreaken berri ematen zuen. Erraza da gaur artikulua luze haietan akats hau edo hura salatzea. Ez dut nik egingo. Euskaldungoaren alor bat elikatu zuen Basarrik urte zail haietan; eta gure esker ona merezi du.

Baina kaletarren euskal alorra sortua zen jadanik. Izenetan beretan irakurleak berehala igarriko duenez.

Karlos Santamaria matematikariaren kronikak zuten mami handia. Oso kontuz eta hitzerdika bazen ere, nazional-katolizismo ofizialaren aurka Don Karlosek Maritain-en filosofia hedatzen zuen 1948az geroztik. Rikardo Arregik, bere aldetik, munduko ezkeraren berri ematen zuen bere kroniketan: Harold Wilson eta beste.

Hain zuzen, ez da txiripa Euskaltzaindiak 1965an K. Santamaria eta R. Arregi berberok Urgazle izendatu izana.

Gurutz Antsolak ekonomia arazoak lantzen zituen euskeraz; ez baitzen batere ohikoa. Eta Arestik poesiaren saila arakatzen zuen astero bere zutabeetan; harrigarriro, poesiatik at ere, A. Mokoroa "Ibar"en *Genio y Lengua* liburua gorai patuz. Gotzon Garate "Gomiga"ren kronikak irakur zitezkeen maiz. Eta Koldo

Euskal zinemak ere eman zuen fruiturik, *Amalur* filma kasu, Walt Disney euskal animazio zinegile handiena 67an hil bazen ere. Walt Disney euskal zinegilea? "Walt Disney jatorriz euskalduna omen zan" titularra topatu dugu behintzat Zeruko ARGIAko 67ko urtarrileko zenbaki batean. "Izen-abizen egiazkoak aukeratu omen-dira: Jose Gizao Zamora. Gizao abizen euskalduna omen-da ta Zamora Almeria'koa" zioen ondoren astekariak. Horra euskal zinema zer den eta zer ez den eztabaidatzeko elementu berria!

Euskal kultur gileak taldeetan biltzeko joera osasungarriak, batasun izpirituak, ez zuen asko iraungo eta hamarkadaren amaieran ETArenean ez zen zatiketa bakarra izan. Jarrai desagertu egin zen eta Ez Dok Amairuk ez zuen luze iraungo. Zatiketa horietan bereizketa politikoak zeresanik izan zuen.

Giro aldaketa horretan letra soil batek ere euskaltzaleen zatiketa ekarri zuen. H-a erabili behar zen ala ez? Ibon Sarasolak orrion hasieran bildu dugun artikuluan gatazkaren berri eman zuen.

Rikardo Arregi,
Aingeru Irigarai
eta Juan San
Martin,
irakasleei
tituluak
banatzen,
euskaldunen
alfabetatzea
abiatuz.



Gerora euskara batuaren ajeen berri emango ziguna, batu gabeko euskararenak somatzen hasia zen. Aita Plazido Mujikak "H-arekin ez dezagun indioarena egin" zioen bitartean, Gabriel Arestik *Harri eta Herri* titulua ipini zion bere bigarren liburuari, propio.

68ko udaberria

Gurean gatazka hitzetan zegoen bitartean,

Mitxelena hizlari ikusten dugu, Donostiako EUTG-etan "euske-
ra eta latiñaren arteko harremani buruz" mintzo.

Ni neu ere (Goihenetxe gaitzinez mozorroturik) agertzen
naiz 1965 urtean; eta nire zutabe finkoari Asterik Aстера zerit-
zton. Artikuluak Patxi Altuna-ren bitartez helarazten nituen
Argiara. Eta sinadura horren atzean argitara nituen hamabost
bat artikulu 1965eko urritik aurrera. "Kaletarrak dira gure hel-
buru nagusia" errepikatzen nuen. Eta F. Mauriac-en "Destins"
nobelaren kritika eskaini ondoren, "euskal Mauriac baten
beharra" aldarrikatzen nuen (1965-X-31).

Maila pertsonalean urte zail mordo bat jasan nuen. Euska-
ra Batuaren alde Euskaltzaindiak garabidean urratsik ematen
ez zuela-ta, dimisioa eman nuen 1963ko irailean.

Hain zuzen Batuaren prozesua bultzatzekotan Batzorde bat
sortu genuen Baionan urte hartantxe. Eta 1964an oinarri
batzuk prestatu genituen, handik 4 urtetara Mitxelenak one-
tsiak. Bai ARGIAk eta bai *Anaitasunak* sostengu osoa eman
zieten hasieratik Batuaren aldeko urrats guztiei.

1964ko udazkenean, Francoren presioei amore emanez,
Parisko gobernuak kasatu egin ninduen Ipar Euskal Herriatik
eta Frantziatik. *Huntaz eta Hartaz* liburua, horretara, 1963-
1964 urteetan Iparraldean idatzia, Bruselako neure bizileku
berrian jaso nuen. Eta Argia-rekiko lotura Belgikatik berrantol-
atu behar izan nuen.

Jakin egin zuen poliziak, ordea, "Goihenetxe" hori nor zen.
Eta beste gaitzizen bat hautatzeko beharra adierazi zidan P.
Altunak. "Zergatik ez Larresoro", galdetu zidan. "Laffitte Kalon-
jea hantxe bizi duk, eta Seminario horretatik pasa duk Iparral-
deko apaiz euskaltzale asko".

Trabarik batere ez nuela erantzun nion. Eta horrela, Goiene-
txe-ri Larresorok eman zion segida ARGIA-n eta bestetan.
Igara, Usako, Aloña, Harribizketa, Atorrasagasti eta beste;
Txillardegirekiko "kunpaña hunín"...

Aldatu egin dira gauzak, bai. Zalantzarik ez.

Parisko ikasleek lehenik, Europako hainbat
hiriburuetakoez geroago, ekintzara pasatzea
erabaki zuten 68ko maiatzean. "Erakus-bideak
ezpaitaude bear aiñean antolatua; lan-bideak
ere erdi-ipurdi dabilta Ikastetxe-saillan.
Azkenengo legeak gauzak okertzera ekarri
dituzte. Bizi-bidea zaildu, etorkizuna illundu,
ikasleak ugaltu ta korapilloak geitu", zioen
orduho Zeruko ARGIAko azaleko artikuluak.



**Parisko kaleak
1968ko maiat-
tzean. Bertako
unibertsitateko
ikasleek "egone-
zin aundia ager-
tu dute ta indar-
kerira jo ere,
beren egonezin
ori agirian jar-
tzeko", Zeruko
ARGIAren ara-
bera.**

Korapiloa ere ez zen makala AEBetako kalec-
tan, Martin Luther King beltzen liderraren hil-
keta eta gero, bereziki. Indarkeria etxean eta
auzoan, hamarkadak aurrera egin ahala Vietna-
meko gatazka luzatuz eta gogortuz joan bai-
tzen. Hori bai, bere soldaduak Vietnam okupa-
tzera bidaltzen zituzten bitartean, AEBek ez
zuten inongo erreparorik sobietarren Txekos-
lovakiako okupazioarengatik euren haserre
bizia agertzeko.

Nazioarteko kontu hauek guztiak, Rikardo
Arregik aztertzen zituen Zeruko ARGIAko
Herriak eta gizonak sail bikainean.

Rikardo Arregi eta Apollo XI

1969ko uztailak 27an Zeruko ARGIAko 334.
zenbakiko azala bi gaiek hartzen zuten osorik:
bata, gizakiak Ilargia zapaldu zuela; Rikardo
Arregi hil zela, bestea. Nazioarteko gaietan kaze-
tari ona izateaz gain, Arregi euskaldunen alfabe-
tatzearen bultzatzaile nagusienetakoa izan zen.
Gainera Gabriel Aresti, Ibon Sarasola, Ramon
Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia eta beste
batzuekin batera Lur argitaletxea sortu zuen
69an bertan. Gabriel Arestik Kriseilu argitaletxea
sortua zuen urte pare bat lehenago, baina Arre-
gik eta besteek argitaletxea erosi zioten Seat 850



UZTAILEAN Argia 2000. zenbakira HELDUKO DA

Maiztetik uztailera, eta astez aste, Euskal Herriaren gertuko historia.
1960. urtetik hasita, protagonisten ahotsak, orduko eta oraingo iritziak, argazkiak...

2000
ARGIA
Independenzia